tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

Harpidedunei banatua ▸ Osteguna ▸ 2004-06-17 ▸ II. urtea ▸ 354. zenbakia

TOLOSALDEA ▸

Segalariak Austrian izan dira

Neskak lehenak izan dira ▸ 5

HITZA Pilota Txapelketa azken partiduetan da finalistak erabakita

FINALAK ▸ Ekainaren 27an jokatuko dira finalak Beotibarren; antolaketa eta harrera ona izan du ▸ 2

Alebin mailako finalerdietako bat, Baliarraingo frontoian, joan zen asteburuan. JOXEMI SAIZAR

IRATXE ETXEBESTE



Sanjoanetako azoka berezia etzi izango da

TOLOSA ▸ Merkatal gune irekia bihurtuko dira Berdura plaza, Trianguloa, San Frantzisko eta Zerkausia goiz osoan zehar ▸ 3

LEITZALDEA ▸

Ikasturte amaierako jaiak, azken egunean

Leitzan eta Areson izango dira bihar ▸ 7

TOLOSA ▸

Eurkal Herriko Herri Kirolen I. Topaketaren finalak, zezen-plazan

Etzi izango dira goiz eta arratsaldez; Zizurkilgo taldea, sailkatuen artean ▸ 4

Adi LEITZAR eta ARESOARRAK!

HITZA etxean jasotzen jarraitu nahi baduzu, egin zaitez harpidedun!

Egun gutxi geratzen dira!

943 30 43 46

astegunetan (08:30etik 20:30era)
larunbatetan (09:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko eta leitzaldeko hitza

KIROLA ▸

HITZA Pilota Txapelketako finalistak erabakita daude

Finalak Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatuko dira ekainaren 27an, igandea; ez da ustekabe handirik izan, etorkizuneko mailan izan ezik

Etorkizuneko mailako finalerdi bateko irudia, joan zen larunbatean Beotibarren. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Herenegun iluntzean Bidegoiango pilotalekuan jokatu ziren kadete mailako finalerdien ondoren, erabakita daude Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza Pilota Txapelketako finalistak, ekainaren 27an —eta ez 30ean, jai egitarauan jartzen duen bezala— Beotibarren finalak jokatuko dituztenak.

Apirilaren 21ean hasi zen txapelketa 152 partaiderekin —eskualdekoak gehienbat, baina Euskal Herri osokoak ere bai—, bost mailatan banatuta. Txapelketaren martxaren berri eman du Aurrera-Saiaz elkarteko Luis Galarraga antolatzaileak. Benjaminetan «espero ziren» bikoteak iritsi dira finalerdietara, nahiz eta bikote on batzuk —Salbarredi-Matxinea berastegiarrak adibidez— kanpoan gelditu diren.

Alebinen artean ere «ustekaberik ez» dela izan dio Galarragak: «Finalerdietara bikote indartsuenak iritsi dira eta finalistak nahiko garbi zeuden, erraz gainditu zituzten finalerdiak».

Infantiletan ere «indartsuenak» iritsi omen dira finalera «dudarik gabe», «nahiz eta Guerra-Otamendi bikotea oso ondo aritu txapelketa osoan zehar», antolatzailearen iritzia.

Kadete mailan lau t'erdi barruan eta banaka jokatu dute txapelketa. «Adin horretan komenigarria ikusten dugu banaka jolasten ikastea, neurri polita delako adin horretarako», dio. Finalera iritsi direnekin batera, Koldo Galarraga bidaniarra, Legarreta urnietarra eta Ojuel hernaniarra «oso ondo» aritu omen dira, hala ere bidean gelditu behar izan dute, Galarragaren kasuan tanto bakar batengatik. Ojuel kanpoan gelditu zen final-laurdenetan, Iturriotz finalistak irabazita.

Etorkizunekoen artean txapelketa «beste modu batera» atera omen da, «ez pentsatuta bezala», egutegian izan diren aldaketengatik, bai pilotariek beste partidu batzuk zituztelako, bai bere eskuek hainbeste partidu ez dituztelako agoantatu. Finala «polita» izango dela uste du Galarragak. Iritsi diren pilotariak nahiko gazteak dira —maila honetan 22 urte artekoak sartzen dira—: Apezetxeak 16 urte ditu, Renobalesek 18 eta beste biek 19-20. Maila honetan, hasieran beste faborito batzuk omen zeuden: Zubieta-Retegi, Belloso-Jaunarena, Errazkin-Irureta... Baina batzuk ordezko pilotariekin aritu behar izan dutenez, ez dira finalera iritsi.

Antolaketa eta harrera ona

Hitza Pilota Txapelketak harrera ona izan du ikusleen artean. Tolosa eta Bidegoiango Aurrera-Saiaz elkarteak oso ondo antolatu du eta pilotazaleak emaitzen berri izan du Hitzaren bitartez astero.

Datorren urterako beheko mailetan —benjaminak, alebinak eta infantilak— bakarrik Gipuzkoako pilotariak onartzeko asmoa azaldu du Galarragak. «Harrobia landu nahi dugu eta horretarako muga jarri behar da, bestela kanpoko jendeak ere ematen du izena», esan du antolatzaileak. Federatuen mailan —kadeteak eta etorkizunekoak— ez da muga hori jarriko. Aurten adibidez, Nafarroa eta Bizkaiko pilotariak ere izan dira partaide.

Finaletarako pilotariak erabakita daude eta hemendik aurrera, hilaren 27ra bitarte, ondo prestatzeko denbora izango dute. Igande horretan, barruan daukaten onena plazaratzen saiatuko dira. Pilota festa ziurtatuta dago.

DATUA ▸

EMAITZAK

Benjaminak. Zelaia-Labaka 16, Eskudero-Jauregi 11. Irazusta-Benadre 16, Garin-Ansa 10.
Alebinak. Etxaniz-Aizpuru 16, San Sebastian-Kastro 2. Urretabizkaia-Jaunarena 16, Gorostidi-Gallurralde 2.
Infantilak. Olaetxea-Sagastibeltza 18, Guerra-Otamendi 11. Iraola-Iraola 18, Gaztañaga-Aizpuru 8.
Kadeteak. Goikoetxea 18, K.Galarraga 17. Iturriotz 18, Otxandorena 4.
Etorkizunekoak. Renobales-Txertudi 22, Etxebeste-Elizalde 21. Apezetxea-X.Arrastoa 22, Zubieta-Retegi 18.

Ugaitz Renobales. J.SAIZAR

FINALAK

Ekainaren 27an, igandea, 10:00etan Tolosako Beotibar pilotalekuan.
Benjaminak. Haritz Zelaia (Bidegoian)-Eneko Labaka (Albiztur) / Iñaki Irazusta (Usurbil)-Julen Benadre (Usurbil).
Alebinak. Etxaniz (Azpeitia)-Aizpuru (Azpeitia) / Beñat Urretabizkaia (Ikaztegieta)-Jon Jaunarena (Leitza).
Infantilak. Iraitz Olaetxea (Lizartza)-Haritz Sagastibeltza (Leitza) / Iker Iraola (Aduna)-Unai Iraola (Aduna).
Kadeteak. Arkaitz Goikoetxea (Beasain) / Odei Iturriotz (Urdiain).
Etorkizunekoak. Ugaitz Renobales (Alegia)-Aliotz Txertudi (Busturia) / Jon Apezetxea (Goizueta)-Xabier Arrastoa (Irurita).

www.tolosaldekohitza.info

▸ sar zaitez eskualdeko web atarira

▸ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:

SANJOANAK ▸

Amarozko eskopetarien bilera, iluntzean

Amarozko eskopetari taldeak San Joan egunari begirako xehetasunak lotu nahi dituela-eta bilerara deitu du gaurko. 20:00etarako egin dute hitzordua auzoko lokaletan, eta taldearekin atera nahi dutenei bilkurara agertzeko deia egin diete.

GIZARTEA ▸

Barrearen tailer berezia antolatu dute etzirako

Tolosako La Risa Inteligente eskolak Barrearen Tailerra antolatu du etzirako Tolosan. Parte hartu nahi duenak 70 euro ordaindu beharko ditu, eta 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da. Arropa erosoa, bi kamiseta eta galtzerdi pare eta garbitasuneko produktuak eraman behar dira tailerrera. Ondo pasatu nahi duenak izena eman dezake 943 118 669 zenbakira deituta.

IGERIKETA ▸

Tolosa igeriketa taldearen udako ikastaroak abian

Tolosako igeriketa taldeak ikastaroak eskainiko ditu udan Berazubiko igerilekuan. Esperientziadun eta tituludun begiraleek emango dituzte, eta begirale bakoitzeko 3-4 ume izango dira. Hilaren 28tik uztailaren 13ra eta uztailaren 14tik 30era izango dira ikastaroak, egunean ordu erdiz. Bazkideek 33 euro eta besteek 40 euro ordaindu behar dute, eta anai bakoitzeko 3 euroko beherapena egingo da. Izen-ematea zabalik da gaurtik aurrera, 11:00etatik 20:00etara.

JUBILATUAK ▸

Bazkide zaharrei festa-omenaldia egingo diete etzi

Harizpe elkarteko sei bazkide zaharrei festa-omenaldia egingo diete etzi: lehenik meza izango da Jesusen Zerbitzarien elizatxoan 11:00etan, jarraian hamaiketakoa eta 14:30ean bazkaria Frontonen. Txartelak bulegoan dira salgai 22 euroren truke.

SANJOANETAKO AZOKA BEREZIA ▸

Azoka guneak prestatzen ari dira egunotan, larunbatean saltzaileek postuak jarri ahal izateko. Argazkian, San Frantzisko ibiltokia. IRATXE ETXEBESTE

Merkatal gune irekia

Sanjoanetako Azoka Berezia izango da etzi, eta herriko gune ezberdinetan postu ugari jarriko dira: Berdura Plazan, Trianguloan, San Frantziskon eta Zerkausian

IRATXE ETXEBESTE

Sanjoanetako azoka bereziak emango die hasiera aurten sanjoanei. Larunbatean Tolosa Gipuzkoako merkatal gune ireki handiena bihurtuko da beste behin ere, eta salmenta guneak Alde Zaharrera ere zabalduko dira. Zerkausiko eta Berdura plazako merkatuetan inguruko produktuak egongo dira salgai. Triangulo plazan, berriz, Euskal Herriko produkturik onenak izango dira, eta baita Leaburuko Mahala baserrian lantzen dutenaren erakusketa ere. San Frantzisko ibiltokian arlo ezberdinetako produktuak izango dira, eta, berritasun gisa, Plaza Berria erabiliko dute larunbatean lehen aldiz artisauen produktuak salmentan jartzeko.

Azoka gune bakoitzerako antolatu dituzten ekitaldiez gain, animazio ekintzak ere prestatu ditu Tolosako Udalak herri giroa sortzen laguntzeko. Esaterako, egun guztian zehar Erraldoien eta buruhandien zazpi konpartsatako —Tolosa, Irun, Hondarribia, Solsona, Lakuntza eta Iruñekoak— 220 kidek hartuko dute parte, herriko kaleak alaituz. Alde Zaharreko kaleetan eta San Frantzisko ibiltokian kalejiran ibiliko dira erraldoiak buruhandien laguntzarekin. Estreinakoz antolatu dute aurtengoan ekimen hori, eta, ondo bidean, bi urtetik behin errepikatu nahi dute arduradunek erraldoien topaketa handia. Konpartsa bakoitzeko kideek beren erraldoirik ederrenak erakusteko parada izango dute, hortaz, etzi.

Azokako ordutegiarekin bat etorriz, talde bakoitzak ekintza ezberdinak egingo ditu Plaza Berrian. 19:30ean konpartsa guztiak plaza horretan bilduko dira, eta, «itxura guztien arabera, Tolosako ikur den plaza horrek ere bere egun handia ospatzeko aukera izango du», diote udal ordezkariek. Gune bakoitzean izango diren produktuen eta ekimenen xehetasunak honakoak dira:

PLAZA BERRIA

Artisauak. Euskal Herritik etorritako 25 artisau izango dira Plaza Berri berritua merkatal gune ireki bezala erabiliko duten lehenengoak. Arantxa Munitaren eskutik zeramika tailerra izango da, halaber, bertan. Bestalde, Irazki elkarte kulturanitzak ere parte hartuko du, bost kontinenteetako gutizia gastronomikoak dastagai jarriz.

ZERKAUSIA

Lehiaketa. Tolomendi Mendi Nekazaritza elkartearen laguntzarekin, Zerkausiko saltzaile-produktoreak sarituko dira urte guztian zehar egiten duten lanarengatik. Lau arlotan banatuko dituzte lehenengo eta bigarren sariak (100 euro eta garaikurra, eta 40 euro eta garaikurra, hurrenez hurren): berdura onena, fruta onena, kalitate handieneko postua eta barietate handieneko postua. 11:30ean hasiko da sari banaketa.

TRIANGULOA

Mahalaren erakusketa. Leaburuko Mahala baserriko Jokin Arrospidek gazta nola egiten den erakutsiko du Trianguloan 10:30etik aurrera. Aldi berean, enpresa horrek lantzen dituen produktuak dastatzeko aukera izango da bertan.

SAN FRANTZISKO

Herriko merkatariak. Tolosan ezagunak diren Amiano jostailu-denda, Artola etxeko tresnak, Arretxe mertzeria, Natural Body eta Zunbeltz dendetako arduradunak San Frantzisko ibiltokiko lehenengo postuetan izango dira, eta beren dendetako ohiko produktuak jarriko dituzte salgai.

EGITARAUA ▸

Azoka gune ezberdinetan hainbat ekitaldi izango dira larunbatean 08:00etatik eguerdira. Goizean bai, baina arratsaldean ere jardungo dute erraldoiek.

08:00. Azokaren hasiera.
10:30. Gazta nola egiten den erakutsiko du Leaburuko Mahala baserriko Jokin Arrospidek Trianguloan.
12:30ak arte ariko da.
11:00. Buruhandi eta erraldoien konpartsen ekitaldiak Plaza Berrian.
14:00ak arte jardungo dute leku horretan.
11:30. Sari banaketa Zerkausian.
14:00. Azokaren amaiera.
17:30. Erraldoiak Tolosako kale eta plazetan ariko dira erakustaldiak egiten.
19:45ean amaituko dute.

tolosaldeko eta leitzaldeko hitza
Praktikak hilabetez HITZAn uztailean eta irailean
Kazetaritza eta Euskal Filologia lizentziaturetako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua
Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 - atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
(ekainaren 22a baino lehen)

Kontzertu hunkigarria, eta Leidor gainezka

MUSIKA ▸ Kontzertu hunkigarria izan zen atzo Ainhoa Arteta soprano tolosarrak haren jaioterrian eskainitakoa. Leidor aretoa bete egin zen, eta bertara bildutakoek emozio handiz jarraitu zuten emanaldia. Arteta bera ere «oso pozik» agertu zen «etxean» kantatzeagatik. Ainhoa Zubillaga mezzosopranoa eta Pedro Jose Rodriguez pianojolea aritu ziren tolosarrarekin. IRATXE ETXEBESTE

Bost auto kiskalita Kondeko Aldapan

GERTAKARIAK ▸ Bost auto kiskali egin dira herenegun gaueko 03:00etan, Kondeko Aldapan. Bizilagunek deituta, suhiltzaileek berehala itzali dute sua. Bost autoak, dena den, erabat suntsitu ditu suteak; eta inguruko beste hiru eta aldameneko etxebizitza kaltetu. Autoen jabeak «arrisku taldeetakoak ez» direla jakinarazi du Ertzaintzak; gertakaria argitzeko ikerketa zabaldu du. LEIRE MONTES

Eraikuntzakoak berriro lanean

EKONOMIA ▸ Eskualdean ere, lanera itzuli ziren atzo eraikuntzako beharginak. Izan ere, herenegun 17:00etan eginiko batzarrean greba bertan behera uztea erabaki zuten. ELA, LAB eta UGT sindikatuek fax eta telefono bidez lortu zuten Adegi patronalarekin aurreakordioa, eguerdian. Orain sindikatu bakoitzak batzarrean erabakiko du dokumentua izenpetu ala ez. LEIRE MONTES

KIROLA ▸

Euskal Herriko Herri Kirolen I. Topaketaren finalak, etzi

Xiba elkarteak antolatuta, 24 talde lehiatuko dira, zezen-plazan, 11:30ean

LEIRE MONTES

Xiba elkarteak antolatutako Euskal Herriko Herri Kirolen I. Topaketa azkenera iritsi da. Etzi, hain zuzen ere, jokatuko da finala, Tolosako zezen-plazan, 11:30ean.

Tolosaldeko ordezkaririk izango du Xiba elkartearen topaketak: Zizurkilgo taldea bigarren sailkatu zen Gipuzkoako finalean, eta Euskal Herrikorako txartela lortu zuen horrela. Zizurkildarrez gain, baliteke Tolosaldeko talde bat ere lehiatzea; izan ere, nahiz eta kanporaketarik ez jokatu, finala egiten den herriko taldea gonbidatu egiten dute antolatzaileek.

Gipuzkoan bezala, beste probintzietan ere jokatu dituzte finalak, eta etziko finalean Euskal Herriko talderik onenak izango dira aurrez aurre. Guztira, neska-mutilek osatutako 24 talde.

Hainbat probatan lehiatuko beharko dute; besteak beste, lokotx biltzea, txingak, gizon proba, dantza, harri-jasotzea, ingudea, zaku lasterketa eta lasto altxatzea.

Gipuzkoako finala, Anoetan; bigarren sailkatu zen Zizurkil. HITZA

TALDEAK ▸

24 taldek hartuko dute parte Xiba Elkarteak antolatutako Euskal Herriko I. Herri Kirolen Topaketaren finalean. Ondorengo zerrendan 26 ageri dira. Lau talde zalantzan daude oraindik: Antigua, Tolosaldea, Ezpeleta eta Biriatu; azkenean, horietako bi soilik izango dira etziko finalean.

Gipuzkoa. Idiazabal, Zizurkil, Igeldo, Hernani, Usurbil, Egia, Antigua eta Tolosaldea.
Bizkaia. Areatza eta Arratia.
Araba. Iturrizabaleta, Mendizabala, Erresala, Lautada eta beste bat.
Iparralde. Angelu, Donibane Lohizune, Baigorri, Bidarrai, Ezpeleta eta Biriatu.
Nafarroa garaia. Ibañeta, Uharte-Arakil, Goizueta, Arbizu eta Arano.

IRIARTE
jatetxea
☎ 943 683 078
BERROBI
Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZArekin elkarlanean
Gure harpidedunen artean IRIARTE JATETXEAK oparitutako 2 lagunentzako afaria eder bat zozketatuko dugu.
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

TOLOSALDEA ▸ KIROLA

Neskek lehen postua lortu zuten, Austria edota Alemania bezalako herrialdeen aurretik. N. LIZARRAGA

Bailarako segalariak Austrian izan dira sega txapelketan

Neskek lehen postua lortu dute eta mutilak bigarren lekuan gelditu dira

GARAZI AZKUE

Austriako St. Marienkirchen herrian izan den sega txapelketan parte hartu du euskaldun talde batek asteburuan, artean Tolosaldekoak. *Altzo*, Mitxelena eta Agirrezabala aritu ziren segan mutilen artean; eta Naroa Geresta zizurkildarra, Roxi Urkola asteasuarra, Izaskun Larrarte ibartarra eta Ainhoa Mazkiaren izan ziren Austriara joan ziren neskak.

Mutilek bigarren postua lortu zuten txapelketan, Tirolgoen atzetik. Gizonezkoen txapelketan, euskaldunekin batera, beste herrialdetako 26 talde aritu ziren: Baviera, Alemania edota Austriako taldeak, besteak beste. Neskak, berriz, lehen lekuan gelditu ziren sei talderen artean.

Festa giroa

Norgehiagoka igandean izan zen, baina larunbatean ere izan zuten lanik hemendik joandakoek. Euskal festa antolatu zuten St. Marienkirchen herrian: Altzo, Mitxelena eta Agirrezabalak aizkora erakustaldia egin zuten, trikitilariekin eta dantzariekin batera.

Geresta txapelketan. N. LIZARRAGA

ZIZURKIL ▸

Gipuzkoako Sega Txapelketako kanporaketak

Zizurkilen izango da asteburu honetan, Sega Txapelketako Gipuzkoako kanporaketa. Mikel Aranalde, Andoni Dorronsoro, Garikoitz Etxeberria, Unai Navarro eta Bixente Mitxelena ariko dira norgehiagokan. Kanporaketa, Gipuzkoako Euskal Kirol eta Joko Federazioak eta Zizurkilgo Ziotza Kirol Elkarteak antolatu du. Zizurkilgo Zaldu azpiko baserrian izango da, igandean, 17:30etik aurrera.

ANOETA ▸

San Joan kantaren ensaioa Ikastolan

San Joanak gertu direla eta, Anoetan, San Joan kantaren ensaioa egingo dute gaur. 20:00etan bilduko dira Anoetako ikastolan. Joan nahi duen oro dago gonbidatuta ensaiora.

ANOETA ▸

Festa alternatiboen balorazio bilera

Orain gutxi amaitu dira herriko festak eta jai alternatiboetako batzordearen bilera izango da gaur Anoetan. Herritarrak 20:00etan bilduko dira udaletxean eta aurtengo festen inguruko balorazioa egingo dute guztien artean. Bilera herritar guztientzat irekia izango dela azaldu dute antolatzaileek.

Gazteentzako tailerrak Atxulondo kultur etxean

ZIZURKIL ▸ Zizurkilgo Udalak gazteentzat tailerrak antolatu ditu aste honetarako. Lehenengoa herenegun izan zen DJ tailerra. Gaur Skate tailerra izango dute eta bihar izango da azken kurtsoa, *hip-hop* tailerra Itxiren eskutik. Ondoren, afaria izango dute herriko gazteek Iriarte jatetxean. G. AZKUE

TELEFONOAK ▸

LARRIALDIAK

▸ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
- Anbulatorioa, larrialdi:461111
- Gernikako arbola: 00 69 00
- Amarozko dispen.: 67 26 37
- Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
- Udaltzaingoa: 67 58 58
- DYA: 67 25 36
- Gurutze Gorria: 67 48 88
- Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo. Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK
- Renfe Tolosa: 65 28 89
- Donostiako autobusa: 36 17 40
- Taxia: 67 04 20
- Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK
- Galtzaundi: 65 50 04
- Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- Ttipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK
- Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- Arramele-AEK: 67 12 14
- Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA
Gaur. Etxebeste J.M. Gernikako arbola, 3. Telf.: 943 65 10 40. Erbiti O., Lizarraga, 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA
Publizitatea. 661 67 88 18. tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldekohitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22. villabona_aiztondo@tolosaldekohitza.info
Anoetaldea. 687 41 00 22 anoetaldea@tolosaldekohitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32. ibarraldea@tolosaldekohitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldekohitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18. leitzaldea@tolosaldekohitza.info

iragarki laburrak ▸

LAN ESKAINTZA
Neska. Neska bat behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. 943 67 58 95. 19:00etatik 21:00etara.

IBARRA ▸ JAIAK

Ekitaldi bereziak prestatzen danborradaren 25. urtemugan

Uztailaren 3an bazkari berezi bat egin nahi dute parte hartu duten guztiekin

Aurreko urtetako danborradaren irudi bat. IBARRAKO KULTUR ARTXIBOA

DANI GIBELALDE

Danborradaren 25. urteurrena dela eta, antolaketaz arduratzen den batzordeak 25 urte hauetan danborradan aritu diren pertsona guztiei aurten ere parte hartu dezatela eskatu nahi die.

San Bartolomeko jaietan hain erroituta dagoen ekitaldi horren inguruko ekintza bereziak antolatzen ari da batzordea. Besteak beste, danborradaren inguruko argazki erakusketa berezia antolatzen ari dira, lehengo eta orain gutxiko irudiak gogora ekarri eta danborradaren historia nolabait azaleratu nahian. Horregatik, danborradaren inguruko argazkiak dituzten herritarrei Kultur Etxera ekarri ditzaten deialdia egin nahi diete. Eramandako argazkiak utzi bezain laster eskaneatu eta berehala jabeari itzuliko zaizkiola gainearatu dute.

Uztailaren 3an bazkari berezi bat egiteko asmoa dute antolatzaileek. Bertan, 25 urtetan parte hartu duten lagunak biltzeko ahaleginetan ari dira; zuzendariak, musika partiturak egin dituztenak...

Era berean, 25 urte hauetan parte hartu duten guztiak gonbidatu nahi dituzte aurten ere danborradara. Gainera, aurtengoan, lehen aldiz atera ziren kantinera eta andereñoak bildu, eta aurtengo gaztetxoekin batera ateratzea proposatu dute. Ziurtatu gabe dute hori aurrera eramango duten ala ez, baina oraingoz, hori da euren asmoa.

Danborradarako izen ematea Sendi Ekintzan, Ibarrako Kirol Elkartean eta Xepla elkartean egin daiteke. Baita ondoko taberna hauetan ere: Zubiaurren, Sendi Ekintzan, Danon Txokoan, Atarin eta Txumitxan. Gazte Festak igaro ondoren, Gaztetxean ere izango da horretarako aukera.

Danborradan ateratzeko lehen entsegua uztailaren 7an izango da, Belabieta kiroldegian (20:00etan haurrak, eta 21:00etan helduak). Antolatzaileek, entseguetara agertzea ezinbestekoa dela azpimarratu dute.

Halaber, parte-hartzaile guztiei zera gogorarazi nahi diete: izena eman beharra dagoela, gutxienez 2 entsegutara joan beharra dagoela eta modu egokian jantzirik atera behar dela danborrada egunean (abarkak barne).

Festa Batzordeak bere garaian onartutako arau horiek, batzordearen ustetan, festa egitarauan nahikoa garrantzia duen jarduera hori modu egokian eta era atsegingarrian gauzatu dadin nahitaez bete behar dira. Antolatzaileen arabera, «horietariko arauren bat betetzen ez duenak, danborradan parte-hartzeari uko egiten diola pentsatuko dugu nahiz eta hori gustuko izan ez. Arautegia bete dadin zuen laguntza eskatu nahi dugu, elkarren artean 25. urteurren eder hori ospa dezagun».

IBARRA ▸ UDALA

Euskara ikasten aritutakoei eta EHUko ikastaroetan parte hartuko dutenei diru laguntzak emango zaizkie

Eskaera orriak Euskara Zerbitzuan jaso daitezke; uztailean eta irailean amaituko dira epeak

D. GIBELALDE

2003-2004 ikasturtean euskara ikasten aritu diren ibartarrei diru laguntza emango die Ibarrako Udalak. Horretarako eskaera orria jaso behar dute Ibarrako Udalaren Euskara Zerbitzuan, ondo bete eta nortasun agiriaren fotokopiarekin batera berriro ere leku berean eman uztailaren 30 baino lehen.

Diru laguntza jasotzeko derrigorrezkoa da Ibarrako erroldan izena emanda egotea gutxienez sei hilabetean; beharrezkoa da ikastaroa amaitzea eta gutxienez eskolen bertaratzea %85ean bermatuta egon beharko du. Horretaz gain, irakasle edo euskaltegiak txostena egin behar du ikaslearen errendimenduari buruz.

Diru laguntzaren zenbatekoari dagokionez, ikasturte edo ikastaro bakoitzeko matrikularen %75 emango da. Barnetegian aritu denak, berriz, kostu osoaren (matrikula gehi pentsioa, ez, ordea materiala) erdiaren %75 jasoko du.

Unibertsitate mailakoak

Bestalde, unibertsitate mailako udako ikastaroetarako diru laguntzak ere emango ditu Ibarrako Udalak, hau da, Udako Euskal Unibertsitateak nahiz Euskal Herriko Unibertsitateak udan antolatzen dituzten euskarazko ikastaroak egiteagatik. Diru laguntza hauek jasotzeko euskara ikasleek bete behar dituzten baldintza berberak bete behar dira eta irizpide berberei jarraiki emango dira; erroldan izen emanda egon, eskaera orria bete eta eskaerarekin batera ordainketa-agiria eta ikastaroa egin dela ziurtatzen duen agiria ekarri behar da. Kasu horretan eskaerak egiteko epea irailaren 30ean amaituko da.

IBARRA ▸

Mus-tximista txapelketa Txairo kafetegian

Bihar gauean Mus-tximista Txapelketa izango da Txairo kafetegian. 22:30ean eman behar da izena. Lehen lauentzat izango dira sariak.

IBARRA ▸

IKE-ren batzarra izango da bihar 21:00etan

Ibarrako Kirol Elkartearen (IKE) batzarra izango da bihar 21:00etatik aurrera elkarteko egoitzan. Bazkideak azaltzeko deialdia egin dute arduradunek.

IBARRA ▸

Ekitaldi ugari bihar hasiko diren Gazte Festetan

Bihar hasiko dira Gazte Festak herrian. Arratsaldean txupinazoa eta perku-poteoa izango da Mulambo taldearekin plazatik abiatuta. Iluntzean, pintxo jatea Gaztetxean. Gauean, herriko nesken arteko sokatira apustua izango da, eta ondoren Habeas Corpu eta Lor taldeen kontzertua. Tartean, ekitaldia ere izango da. Bukaeran DJ Bull izango da Gazte Asanbladako txoznan.

GAZTELU ▸

KZgune berria zabaldu dute herrian

Maiatzaren 27an Gaztelun KZgune berria zabaldu zen. Bertan intereneten nabigatzen ikasteko aukera dute herritarrek, doan. Gainera, zenbait ikastaro interesgarri dira eskura. KZgunea udaletxeko beheko solairuan dago eta 16;00etatik 20:00etara dago zabalik. Ekainaren 21etik aurrera 09:00etatik 13:00etara egongo da irekita. Informazio gehiago lortzeko, KZgunean, edo Uli Mankomunitateko telefonora deitu behar da (943 68 22 28).

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu
943 30 43 46
Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

HEZKUNTZA ▸

Eskola umeak opor usainean murgilduta daude udari begira

Bihar dute azken eguna eta kurtso bukaerako festak antolatu dituzte Leitzako Erleta eta Aresoko eskoletan

Aresokoek jolastokian eginen dute festa. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bihar ostirala, Aresoko eta Leitzako eskoletako ikasleek kurtso bukaerako festaz gozatzeko aukera izanen dute, goiz guztian zehar. Leitzako Erletakoak, lehendabiziko ordua gelak txukuntzen eta hurrengo ikasturterako prestatzen ariko badira ere, bi herrietako gaztetxoek ez dute liburuekin hara eta honera ibili beharrik izanen azken egunean.

Bi eskoletan ere, jokoak izanen dituzte nagusiki, ohikoak: aulki dantza, soskor-bilketa, globoak... Erletan zikloka antolatu dituzte, tutore bakoitzak bere ikasleekin. Baina Areson guztiak elkarrekin ibiliko dira; gainera hemengo haurrek dantza ere eginen dute, beraiek asmatutako koreografia eskainiko dutelarik. Bereziki aurten ez dute bestelako antzerkirik eta prestatu, hain zuzen ere «ikasturtean zehar hainbat antzerki landu eta antzeztu baititugu, bai eskolan bertan eta baita jendaurrean ere, herrian nahiz kanpoan» zioten irakasleek.

Etxarriarrak

Honen harira, Areson zehazki, gaur osteguna, 11:30ak aldera, Etxarri Aranatzeko eskolako ikasleak heldu dira antzerki emanaldia egitera «gu orain dela gutxi joan baikinen Urdiainera eta handik, orain, trukean honera datoz» adierazi zutenez. Ekitaldi hauetara herritar guztiak gonbidatzen dituzte.

Edozein moduz, jokoen ondoren indarrak berreskuratzeko, bi ikastetxeetan hamaiketakoa izanen dute zain eta hortik aurrera, uda guztia ere bai.

Sariaz gozatzera

Bestalde gaur goizean Kantabriako Cabarcenora joanak izanen dira Erletako 6. mailako ikasleak, iaz, 5. mailan zeudela, Nafarroako Gobernuko Euskara Zerbitzuko deklamazio saria irabazi baitzuten, zehazki kultur ikasbidairako.

LEITZA ▸ KULTURA

Abesbatzen topaketak aurten Lizarran dira

Larunbat honetan Nafarroako mendialdeko 9 abesbatza elkartuko dira, Asketa barne

J. ASTIBIA

Aurten Lizarran burutuko da Nafarroako mendialdeko abesbatzen topaketa, zehazki han bertako Golem zineman, 20:00etan eta besteak beste, Asketa abesbatza ere hantxe izanen da.

Lizarran bilduko direnak, bederatzi abesbatza izanen dira: Leitza, Lizarra Altsasu, Etxarri Aranatz eta Doneztebetik bana eta Bortzirietatik lau. Orotara 300 bat kantari bilduko dira bertan eta talde bakoitzak bina kantu abestuko ditu. Asketak *Harotzak erran dio* eta *Oi laborari gaixua* eskainiko ditu sei ahotsetara. Bukaeran guztiak elkarrekin beste hiru pieza eskainiko dituzte.

Topaketa hauek duela bi urte berreskuratu zituzten, abesbatza hauen beraien ekimenez eta Leitzan elkartu ziren. Iaz berriz Altsasun. Jakitera eman dutenez, egitasmo horretarako ez dute laguntzarik jasotzen, «lehen izaten zen, baina orain gastuak geron poltsikotik ordainduta joaten gara», adierazi du taldeko zuzendariak. Baina dena den ederki aski ibiltzen omen dira «lagun arteko topaketa da azken finean eta ekitaldia bukatuta ere, kantari jarraitzen dugu, armoni ederrean».

Ikasleak esatari lanetan

LEITZA ▸ 1.go, 3., 5. eta 6. LHko ikasleek asteazkenero *Erletatik Karrapera* irratsaio berezia emititu dute, ordu erdiz, Aste Santuko oporrak ezkeroztik. Saioak, ipuinez, bertsoz, elkarrizketaz eta beraien edozein modutako sormen-lanez hornitu dituzte eta eskolako berriak ere hedatu dituzte uhinetan barrena, zorion agurrekin batera. Atzo zuten azken saioa, irudian ageri diren ttikienekin. J. ASTIBIA

iragarki laburrak ▸

MANDIO INMOBILIARIA
Laskorain, 3 TOLOSA

Tolosa. Korreo kalean 70 m2-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera begira. Balkoiarekin. 31.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Laskorain kalean etxebizitza ugari salgai, 3 gelakoak 33.000.000 pzta. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Iurren etxe atxikia salgai; lorategia, terraza eta tximenetaz hornitua. Polita. 76.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Errementari kalean apartamentuak bi logela eta logela bakarrekoak. 2 logelakoak 25.000.000 pzta eta gela bakarrekoak 23.500.000 pzta. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Kondeko aldapan etxebizitza salgai, 90 m2-koa eta kanpoaldera begira. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Bidebietan etxebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Trianguloan garaje marra salgai. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.
Tolosa. Egoera ezin hobean dagoen etxebizitza salgai. Bi logelakoa, Jesusen Zerbitzarien inguruan. Mandio 669 87 19 09.
Tolosa. Amarozen etxebizitza alokairuan. Hiru logela, kanpoaldera begira, igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.
Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoa. 33.000.000 pzta. Mandio. 669 87 19 09.
Ibarra. Ibaigain kalean 86 m2-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera. Mandio. 669 87 19 09.
Anoeta. Eraikuntza berriko etxebizitza, 97 m2-koa, 3 logela, bainugela, trastelekuarekin. Mandio: 669 87 19 09.
Alegia. Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.
Alegia. Bigarren eskuko etxebizitza salgai. 3 gela, egongela, terraza eta sukaldearekin. Mandio. 669 87 19 09.
Amezketa. Duplexa salgai; 70 m2-koa, eraiki berria, igogailua eta berogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.
Berrobi. 70 m2-ko etxebizitza salgai. Bi logela. 23.700.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.
Elduain. Etxe atxikia 4 gelakoa eta 2 solairukoa. Mandio. 669 87 19 09.
Aia. Azken etxebizitza. Ingurune naturalean hondartzatik 15 minutura, bi gelako apartamentuak; garajea aukeran. 29.000.000 pzta. Mandio. 669 87 19 09.
Corella. Etxe atxiki rustiko berriak, portxearekin, 2 gela, bainua eta sukaldez hornitua. Berria 1.000 m2–ko terrenoarekin. Mandio 669 87 19 09.
Haro. Errioxan etxebizitza salgai, 75 m2-koa eta hiru gelakoa 16.000.000 pezeta. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK
Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m2-ko lokala salgai. 669 87 19 09
Tolosa. Taberna salgai, bezeroekin; prezio interesgarrian. 669 87 19 09.
Tolosa. 428 m2-ko pabiloi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbidea ondoan. 669 87 19 09.

tolosaldeko eta leitzaldeko
hitza

ARGITARATZAILEA: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
LEGE GORDAILUA: SS-0398-03
ZUZENDARIA: Joxemi Saizar
EGOITZA: Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa, 20400
TELEFONOA: 943 65 56 95 **FAXA:** 943 65 00 18
POSTA ELEK.: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
WEBGUNEA: www.tolosaldekohitza.info
TIRADA: 7.500 ale

Harpidedunei banatua ▸ 2004ko ekainaren 17a, osteguna ▸ II. urtea

BERTAKO HEDABIDEAK
eta Tolosaldeko 77 gizarte eragile:
(HITZAren enpresan parte hartzeko, deitu 943 65 56 95ra)

bai euskarari bai

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK
udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Berastegi, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...) 943 30 43 46

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena 23 hotzena 16
BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

AGENDA ▸

ANTZERKIA

Berrobi. Iñaki Beraetxek eta Aitzpea Goenagak antzerki saioa eskainiko dute, txikienei zuzenduta, 18:00etan etxolan. Barbara kakalardoa, Agustina oiloa eta Pepa eta Peperi buruzko istorio eta abestiak izango dira.

DEIALDIAK

Amezketa. Erakusketa erraldoia antolatu nahidu Gazte Taldeak:argazkiak, pintura lanak, hari lanak, tresna zahar berrituak, egurrezko irudiak, buztina, eskaiola, zumea... Prestatzeko bilera, bihar 18:30ean gela polibalentean.
Anoeta. San Joan kantaren ensaioa 20:00etan ikastolan.
Anoeta. Festa alternatiboen balorazio bilera. Udaletxean 20:00etan.
Berastegi. Egun osoko ibilaldia antolatu du Gaztainondok; Txillida Lekura eta Oriora bisitak egingo dira. Bazkideek 12 euro ordaindu behar dute, gainerakoek 14 euro.
Ibarra. Ibarrako Kirol Elkartearen batzarra. Bihar 21:00etan egoitzan.
Ibarra. Mus-tximista Txapelketa Txairo kafetegian. Izen-ematea 22:30ean.
Ibarra. Sendi ekintzaren San Bartolometako zozketako txartelak salgai dira Atarin, Zubiaurren, Danon Txokoan, Gurasoen elkartea tabernan, eta Arkaitz Azpin eta Txumitxan
Tolosa. Amarozko eskopetarien bilera San Joan egunari begira. 20:00etan auzoko lokaletan. Taldean atera nahi dutenei irekita.
Tolosa. Barrearen tailerra. Etzi 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara Lizardi plazan (943 11 86 69).
Tolosa. Harizpe elkarteko sei bazkide zaharrei festa-omenaldia etzi. Meza Jesusen Zerbitzarien elizan 11:00etan, hamaiketakoa eta bazkaria Fronton jatetxean 14:30ean.
Tolosa. Astebururako Alpino Uzturre elkarteak irteera antolatu du Moncayo (2.313 m) eta Lobera (2.227 m) mendietara. Irteera larunbatean 07:00etan Gorosabeletik izango da. Izen-ematea: Alpino Uzturre (Gudari, 6. 943 65 27 89).
Tolosa. Alcalako espetxera joateko autobusa Manu etxera plataformak antolatuta, larunbatean 06:00etan abiatuko da. Izen-ematea: Tolosako Kultur Etxea eta Raku eta Laier tabernetan, Alegian, Anoetan, Ibarran eta Villabonan.

Sanjoanetako batel estropadak prestatzen

TOLOSA ▸ Aurtengo sanjoanetako berrikuntzetako bat batel estropaden berreskurapena izango da, erakusketa eta errebindikazio modura izango bada ere. Hilaren 27an, igandea, izango da eta arraunlari beteranoak eta gazteak izango dira lehian. Arraunketa eremua behar bezala prestatzeko, atzo exkabadora bat sartu zen ibaian eta bertako harriak kentzen hasi zen. Hiru bat egunez ariko da bertan, Oria ibaia arrauna egiteko prest uzteko. IRATXE ETXEBESTE

ERAKUSKETAK

Tolosa. Maria Carmen Gorbea margolari donostiarraren koadroak Saikin tabernan. Hilaren amaiera arte.
Tolosa. Charo Berra pintore tolosarraren margolanak Lanbroa tabernan. Hilaren bukaera arte.
Tolosa. Faustino Aranzabal donostiarraren margolanak ikusgai Aranburu Jauregian uztailak 3a bitarte.
Tolosa. Kultur Etxeko tailerreko ikasleen lanen erakusketa bihar uztailaren 3ra Aranburu Jauregian.
Villabona. Arratzain eraikinak 25 urte betetzen dituela-eta, argazki erakusketa dago ikusgai Gurea zineman 17:00etatik 19:00etara igandera arte. Igandean 11:30etik 13:30era.

JAIAK

Ibarra. Txupinazoa eta perku-poteoa Mulambo taldearekin; iluntzean pintxo jatea Gaztetxean; gauean herriko nesken arteko sokatira apustua eta ondoren Habeas Corpus eta Lor musika taldeen kontzertua; tartean ekitaldia eta bukaeran DJ Bull izango da Gazte Asanbladaren txosnan.

MUSIKA

Altzo. Loatzo musika eskolako ikasleen ikasturte bukaerako emanaldia Erretoretxean 19:00etan.
Asteasu. Ken zazpi eta Sei urte taldeen kontzertua. Etzi 23:00etan kiroldegian.
Irura. Loatzo musika eskolako ikasleen kurtso amaierako kontzertua elizan 19:00etan.
Tolosa. Maskor tabernan bihar 23:00etan *House+house=house.* DJ Arabo eta DJ Toño.
Villabona. Loatzo musika eskolako ikasleen ikasturte bukaerako kontzertua Gurea zineman bihar 18:00etan.

ZINEMA

Tolosa. *Troya* filma. Bihar 22:30ean Leidor zineman.

GALTZAUNDI ▸

Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 193.a.
Orrialdeak. 36.
Tirada. 5.500 ale.
Gai nagusia. Lierni Armendariz Indian.
Beste gaiak. May Colmenero, Irazki, Bilgune feminista, xake...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▸ Nafarroa 6, behea. Tolosa
▸ 943 65 50 04
▸ galtzaundi@galtzaundi.com
▸ www.galtzaundi.com

AIURRI ▸

Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 215.a.
Orrialdeak. 40.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Mintzola ekimena
Beste gaiak. Joseba Otaegi, mendi ibilaldia, musikariak, bertso eta ipuin lehiaketa...
Argitaratzailea. M.Larramendi bazkuna.
▸ Berria 47, 3. esk. Amasa-Villabona
▸ 943 30 07 32
▸ aiurri@topagunea.com
▸ www.aiurri.com

ZORION AGURRAK ▸

URTE ASKOAN
Dolores Iturralde Jauregi (Tolosa). Gaur 84 urte. Zorionak familiaren partetik.

URTE ASKOAN
Ander Balerdi Pagola (Tolosa). Gaur 4 urte. Zorionak etxeko guztien partetik.

URTE ASKOAN
Naroa Mendizabal Sandonis (Donostia). Gaur 8 urte. Gure etxeko errealzaleak.

HITZA, zorion agurren tartea
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!
HITZAren egoitzara (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

press to kalitatezko garbiketa azkarrak
EDREDOIA GARBITZEAGATIK EDO ARROPA KONPONTZEAGATIK: JANTZI BATEN GARBIKETA OPARI
ALFONBREN GARBIKETA: 7,50€/m²ko
San Frantzisko, 19 • TOLOSA • 943 65 38 77